

Organoa: *Etxalarko Udalaren Osoko Bilkura.*
Organo: Pleno del Ayuntamiento de Etxalar.

Batzarra: *Ohikoa*
Sesión: *Ordinaria.*

Deialdia: *Lehena, legalki egina.*
Convocatoria: Primera, legalmente convocada.

Eguna: *Bi mila eta zazpiko maiatzaren hamarrean.*
Día: Diez de mayo de dos mil siete.

Ordua: *Arratsaldeko zortzietan.*
Hora: A las ocho de la tarde.

Lekua: *Udaletxea.*
Lugar: Casa Consistorial.

Bertaratuak / Asistentes:

Alkatea / El Alcalde
Zinegotziak / Concejales

D. Patxiku Irisarri.
D. José M^a. Maia.
D^a. Anabel Arburua.
D. Agustín Arribillaga.
D^a. Arantxa Zubieta.
D. José Luis Legarra.

Idazkaria / Secretario

GAI ZERRENDA

- 1.- *Aurreko 3 aktak.*
- 2.- *Alkatearen ebazpenak.*
- 3.- *Euskara Mankomunitatearen akta.*
- 4.- *Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen bi akta.*
- 5.- *Foru Agindua badenatarako dirulaguntzak erabakitzen dituen.*
- 6.- *Foru Agindua, Nafarroako Lurralde Antolamenduaren planen aurrerapenak jendaurren jartzen dituen, eta toki entitateei entzunaldia ematen diena.*
- 7.- *Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak egin dituen hitzarmenak, «Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.U.»-rekin eta «Iberdrola S.A.»-rekin.*
- 8.- *Udal Planaren 1. Banaketa Eremuko 1. Sektorearen birzatiketa proiektuaren aldaketa.*
- 9.- *Fakturak.*
- 10.- *Eskaerak eta galderak.*

ORDEN DEL DÍA

- 1.- *Las 3 actas anteriores.*
- 2.- *Resoluciones del Alcalde.*
- 3.- *Acta de la Mancomunidad de Euskara.*
- 4.- *2 actas de la Mancomunidad de Servicios Sociales.*
- 5.- *Orden Foral que resuelve las ayudas para badenes.*
- 6.- *Oden foral, por la que se someten a información pública y audiencia de las entidades locales los avances de los planes de Ordenación Territorial de Navarra.*
- 7.- *Convenios de la Federación Navarra de Municipios y Concejos con Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.U. y con Iberdrola S.A.*
- 8.- *Modificación del proyecto de reparcelación del Sector 1 del Area de Reparto 1 del Plan Municipal.*
- 9.- *Facturas.*
- 10.- *Ruegos y preguntas.*

1. GAIA

1º. ASUNTO

Bilera hasita, 2007ko apirilaren 12ko, apirilaren 26ko eta apirilaren 28ko bileren aktak aho batez eta aldaketarik gabe onartu dira.

Abierta la sesión, se aprueban por unanimidad, en los términos redactados, las actas de las sesiones de 12 de abril, 26 de abril y 28 de abril de 2007.

2. GAIA

2º. ASUNTO

Gaia: Alkatearen ebazpenak.

Objeto: Resoluciones del Alcalde.

Jakitera eman dira 25/2007 eta 30/2007aren arteko Alkatearen ebazpenak.

Se da cuenta de las resoluciones del Alcalde, desde la 25/2007 hasta la 30/2007.

Aho batez ERABAKI DA:

SE ACUERDA por unanimidad:

Udalbatza jakinaren gainean geratzea.

Darse por enterada la Corporación.

3.GAIA

3º. ASUNTO

Gaia: Hiri-hondakinen Mankomunitatearen akta, 2007-03-19koa.

Objeto: Acta de la Mancomunidad de basuras, de 19-03-2007.

Aho batez ERABAKI DA:

SE ACUERDA por unanimidad:

Udalbatza jakinaren gainean geratzea.

Darse por enterada la Corporación.

4. GAIA

4º. ASUNTO

Gaia: Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen aktak, 2007-03-05ekoa eta 2007-03-12koa.

Objeto: Actas de la Mancomunidad de Servicios Sociales, de 05-03-2007 y 12-03-2007.

Aho batez ERABAKI DA:

SE ACUERDA por unanimidad:

Udalbatza jakinaren gainean geratzea.

Darse por enterada la Corporación.

5. GAIA

5º. ASUNTO

Gaia: 126/2007 Foru Agindua, Toki Administrazioako kontseilariak emana, Etxalarko Udalak badenatarako eskatu zuen dirulaguntza ukatzen duena.

Objeto: Orden Foral 126/2007, del Consejero de Administración Local, que deniega la ayuda solicitada por el ayuntamiento de Etxalar para badenes.

Arrazoia: Herri Lanetarako Zuzendaritzak egindako kontrako txostena, Arautegi Teknikoa ez dutelakoz betetzen. Arautegi hori Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak onartu zuen 787/2001 Foru Aginduaren bitartez.

Motivo: Informe negativo de la Dirección General de Obras Públicas por ser contrarios a la normativa técnica aprobada por la Orden Foral 787/2001, del Consejero de Obras Públicas, Transportes y Comunicaciones.

Aho batez ERABAKI DA:

SE ACUERDA por unanimidad:

Udalbatza jakinaren gainean geratzea, eta aipatutako Herri Lanetarako Zuzendaritzak egin zuen informea eskatzea, M. Lezak proposatu duen bezalaxe.

Darse por enterada la Corporación y solicitar el mencionado informe de la Dirección General de Obras Públicas, de conformidad con la propuesta de M. Leza.

6. GAIA

6º. ASUNTO

Gaia : Foru Agindua, Nafarroako Lurralde Antolamenduaren planen aurrerapenak jendaurren jartzen dituen, eta toki entitateei entzunaldia ematen diena.

Objeto : Orden Foral, por la que se someten a información pública y audiencia de las entidades locales los avances de los planes de Ordenación Territorial de Navarra.

Jakitera eman da aipatutako Foru Agindua, 2007ko apirilaren 10ekoa, eta 176. zenbakia duena, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilariak emana.

Se da cuenta de dicha Orden Foral 176, de 10 de abril de 2007, del Consejero de Medio Ambiente, Ordenación del Territorio y Vivienda.

Azalpenak :

Exposiciones :

Zenbait gai hor agertzea inportantea da, gero hobetuz joaten ahal izateko, adibidez, Arrakoitzeko industrialdea, bizikletaren bidea, Zugarramurdiko bidea, eta abar.

Es importante que ahí aparezcan algunos temas, para luego poder ir mejorando, por ejemplo, el polígono industrial de Arrakoitz, la vía de la bicicleta, el camino de Zugarramurdi, etc.

Alegazioak egin beharko dira.

Habrá que hacer alegaciones.

M. Leza : Turismoari ematen zaio garrantzia, baina baita ere eman behar zaio industriari eta bertze jarduera ekonomikoei.

M. Leza : Se le da importancia al turismo, pero hay que dar también a la industria y a otras actividades económicas.

Azalpenak bukatu ondoren,

Finalizadas las deliberaciones,

Aho batez ERABAKI DA :

SE ACUERDA por unanimidad :

Lehenbizikoa.- Udalbatza jakinaren gainean geratzea.

Primero.- Darse por enterada la Corporación.

Bigarrena.- Egokiak ikusten diren alegazioak aurkeztea.

Segundo.- Presentar las alegaciones oportunas.

7. GAIA

7º. ASUNTO

Gaia : Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak egin dituen hitzarmenak, «Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.U».-rekin eta « Iberdrola S.A. »-rekin.

Objeto : Convenios de la Federación Navarra de Municipios y Concejos con Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.U. y con Iberdrola S.A.

Hitzarmenen data : 2006ko abenduaren 31a.

Fecha de los convenios : 31 de diciembre de 2007.

Edukina : Ehuneko 1,5eko tasa kobratzeko arauak.

Contenido : Regulan el cobro de la tasa del 1,5 por ciento.

Azalpenak :

Exposiciones :

M. Leza : Gure aldetik eskatuko nioke Udalen Federazioari Iberdrolarekin dituen harremanetan bertze gai batzuk ere bultzatzeko, adibidez, lineen garbiketak, eta abar.

M. Leza : Por nuestra parte le pediría a la Federación de los Municipios que con ocasión de las relaciones que tiene con Iberdrola, impulse también otras cuestiones, como la limpieza de las líneas, etc.

Alkatea : Zenbait kontratu Iberdrolak aprobetxatzen ditu egin beharrak diren bertze egitura edo zerbitzu batzuk kontratu horietan sartzeko, nahiz eta zerikusirik ez izan, eta horrela gasturik gabe egiten ditu.

El Alcalde : Iberdrola aprovecha algunos contratos para incluir en los mimos otras infraestructuras o servicios ajenos al contrato pero que es preciso realizar y así los lleva a efecto sin gastos.

Hori abuso bat da, eta Udalen Federazioak zerbait egin beharko luke.

Eso es un abuso, y la Federación de Municipios debería hacer algo.

M. Leza : «Comisión Nacional de la Energía»-ak languntza ematen dio Iberdrolari eremu ruraletan galtzen duena kittotu eta kalitateko zerbitzua emateko.

M. Leza : La Comisión Nacional de la Energía concede ayuda a Iberdrola para compensar los déficit de las zonas rurales y dar un servicio de calidad.

Kalitateko zerbitzu hori ez dela ematen eta, Udalen Federazioari eskatuko nioke arazo hau kontrolatu eta neurri egokiak gestionatzeko, adibidez, aipatutako laguntza murriztea eta abar.

Ante la falta de la calidad del servicio, pediría a la Federación de Municipios que controle dicho problema y gestione las medidas oportunas, por ejemplo, reducir la mencionada ayuda, etc.

Aztertu ondoren,

Previo examen,

Aho batez ERABAKI DA

SE ACUERDA por unanimidad :

Lehenbizikoa.- Etxalarko Udalak aipatutako hitzarmenekin bat egitea.

Primero.- Adherirse el Ayuntamiento de Etxalar a dichos convenios.

Bigarrena.- Erabaki honen azalpenetan aipatutako kezkak eta eskaerak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari jakinaraztea.

Segundo.- Comunicar a la Federación Navarra de Municipios y Concejos las preocupaciones y peticiones mencionadas en las exposiciones de este acuerdo.

8. GAIA

8º. ASUNTO

Gaia : Udal Planaren 1. Banaketa Eremuko 1. Sektorearen birzatiketa proiektuaren aldaketa.

Objeto : Modificación del proyecto de reparcelación del Sector 1 del Area de Reparto 1 del Plan Municipal.

Eskatzaileak : Angel Alonso Martín eta Construcciones Berri S.A.

Solicitantes : Angel Alonso Martín y Construcciones Berri S.A.

Proiektua aztertu ondoren eta udal arkitektoek egin duten aldeko informea kontutan hartuta,

Examinado el proyecto, y visto el informe favorable de los arquitectos municipales,

Aho batez ERABAKI DA :

SE ACUERDA por unanimidad :

Lehenbizikoa.- Aipatutako dokumentua hasiera batez onartzea.

Aprobar inicialmente dicho documento.

Behin betiko onespeneren aurretik, zerbitzuetako instalazioen aldaketari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko da, birzatiketari ekogiturik.

Previamente a la aprobación definitiva, se deberá presentar la documentación sobre la modificación de las instalaciones de servicios, adaptadas a la reparcelación.

Bigarrena.- Dokumentuari dagozkion tramiteak egitea.

Segundo.- Efectuar los trámites correspondientes al documento.

9. GAIA

9º. ASUNTO

Gaia : Fakturak.

Objeto : Facturas.

<i>Beko Mintegiak: Herrian barna jartzeko loreak / Flores para poner por el pueblo</i>	109,27
<i>Zozaya Fontanerria: Arotzeneko obrako uraren hodiak konpontzeko zenbait material / Material diverso para arreglar tuberías de agua en obra de Arotzenea.</i>	19,35

<i>TransTxakain: Gaztelu gibelesko aldean hodi bat libratzea / Desatascar tubería en la trasera de Gaztelu</i>	412,96
<i>Orsa SL: Zugarramurdiko bidea eta karrikak moldatzeko brea / Brea para acondicionar el camino de Zugarramurdi y calles.</i>	451,84
<i>Sarobe Hermanos SL: Zugarramurdiko bidea eta karrikak moldatzeko brea garraiatzea / Transporte de brea para acondicionamiento del camino de Zugarramurdi y calles.</i>	129,92
<i>Berdabio Basogintza SL: Zulobi aldean landaketak / Repoblación en Zulobi</i>	33.462,20
<i>Berdabio Basogintza SL: Mendiko kimaketak eta garbiketak / Podas y limpiezas en el monte</i>	25.507,76
<i>Namainsa: Construcciones Berrik Bekolandan egin behar dituen garajei buruzko bi txosten / Dos informes sobre los garajes que va a hacer Construcciones Berri en Bekolanda</i>	382,80
<i>Usoa Nekazari Kooperatiba: Albintearendako zenbait material / Material diverso para el alguacil</i>	31,76
<i>Usoa Nekazari Kooperatiba: Eskoletako kalefakziorako gasolioa / Gasoil para la calefacción de las escuelas</i>	2.033,17
<i>Usoa Nekazari Kooperatiba: Land Roverrarako eta eskoletako kalefakziorako gasolioa / Gasoil para el Land Rover y para la calefacción de las escuelas</i>	169,99
<i>Bortzirriak SL: Aspiragailurako poltsa bat / Una bolsa para el aspirador</i>	7,50
<i>Bortzirriak SL: Aspiragailurako bi poltsa / Dos bolsas para el aspirador</i>	20,00
<i>M^a Isabel Genua Iturria: Herriko Etxea, Eskola, Kontsultategia, Iharria, Kultur Etxea eta Albintearendako zenbait material / Material diverso para Ayuntamiento, Escuela, Consultorio, Iharria, Casa de Cultura y alguacil</i>	75,74
<i>Masbytes: www.andretajabe.com dominioaren mantentze-lana / Mantenimiento del dominio www.andretajabe.com</i>	174,29
<i>Geserlocal, S.L.: Martxoko kontuak egiteko gastuak / Gastos por llevar las cuentas en marzo</i>	870,85
<i>Kulturkari: Herriko ostatua adjudikatzeko lehiaketaren iragarkia / Anuncio para la adjudicación de la posada municipal.</i>	62,00
<i>Javier Iriarte Sansiñena: Lonetazko oihal bat Kultur Etxerako eta kilometrajea / Una tela de loneta para la Casa de Cultura y kilometraje</i>	112,80
<i>Javier Iriarte Sansiñena: Aurikularrak, mikrofono bat eta CD-ak gordetzeko zorroak / Auriculares, un micrófono y sobres para CDs</i>	19,98
<i>Niebla Informatica: Hardwaren mantentze-lana / Mantenimiento de Hardware</i>	232,00
<i>Aunia: Aunia aldizkarian argitaratutako dolmenei buruzko artikulua / Artículo publicado en la revista sobre los dólmenes en Etxalar.</i>	237,80
<i>Berria: Kultur Etxerako Liburu bat / Un libro para la Casa de Cultura</i>	1,95

<i>Xibot SL: Kultur Etxerako mahai joko bat / Un juego de mesa para la Casa de Cultura</i>	32,30
<i>Gure Liburuak: Kultur Etxerako Liburu bat / Un libro para la Casa de Cultura</i>	13,60
<i>Asoc. Bomberos de Navarra: SUA aldizkarian iragarkia / Anuncio en la revista SUA</i>	139,43

Udalbatzak oniritzia eman die aipatutako faktura eta gastuei.

La Corporación da el visto bueno a las mencionadas facturas y gastos.

Gai zerrendatik kanpo eta aho batez, gehiengo absolutua lortuta, premiakoa dela aitortu ondoren, hurrengo erabakia onartu da:

Fuera de convocatoria y previa declaración de urgencia por unanimidad, que supone la mayoría absoluta, se adopta el siguiente acuerdo:

10. GAIA

10º. ASUNTO

Gaia : 2007ko maiatzaren 4ko uholdeak.

Objeto : Inundaciones de 4 de mayo de 2007.

Jakitera eman dira hasiera batean egin diren ondoko kalteen balorazioak, osatu beharko direnak gehiago ikusi ondoren:

Se da cuenta de las siguientes primeras valoraciones, que habrá que completar con próximas comprobaciones:

-Andutzeta eta Antsolokuetako auzoetan, udal arkitektoek egin duten balorazioa: 51.897,70 euro.

-En las calles Andutzeta y Antsolokueta, valoración efectuada por los arquitectos municipales: 51.897,00 euros.

-Baserri eta mendiko bideetan, Enrique Montero teknikariak egin duen balorazioa: 276.823,07 euro.

-En caminos a caseríos y pistas de monte, valoración efectuada por el técnico Enrique Montero: 276.823,07 euros.

Jakitera ere eman da partikularrek aurkeztutako kalteen zerrenda.

Se da cuenta también de la relación de daños presentados por los particulares.

Azalpenak:

Exposiciones:

Alkatea: Hiru multzotan biltzen ahal ditugu kalteak:

El Alcalde: Los daños los podemos recoger en tres grupos:

*-Karrikak eta baserrietako bideak.
-Mendiko bideak.
-Partikularrak.*

-Calles y caminos a caseríos.
-Caminos de monte.
-Particulares.

Udal arkitektoak, Fco. Javier Chocarrok, karriketako kalteak ikusi ditu eta dagokien balorazioa egin du. El arquitecto municipal, Fco. Javier Chocarro, ha comprobado los daños de las calles y ha efectuado la valoración correspondiente.

Enrique Monterori esan genion non ziren kalteak, hortik pasatu, eta baserrietako eta mendiko bideetan gertatutako kalteen memoria baloratua egin du. A Enrique Montero le dijimos dónde estaban los daños, ha pasado por ellos y ha hecho la memoria valorada de los caminos a caseríos y caminos de monte.

Nafarroako Gobernutik kalteen balorazioa eskatu dute, eta bere teknikoek ere ikusi dituzte. Del Gobierno de Navarra han solicitado la valoración de los daños, y sus técnicos han comprobado también los mismos.

Astelehenean eskualdeko alkateak bildu ginen Nafarroako presidentea, Javier Caballero Lehendakaritza kontseilaria, eta Jose Javier Echarte Nekazaritza kontseilariarekin. El lunes los alcaldes de la zona nos reunimos con el Presidente de Gobierno Miguel Sanz, Consejero de Presidencia Javier Caballero, y Consejero de Agricultura José Javier Echarte.

Agindu zutenez, azpiegitura publikoetako gastu guztiak Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu dirulaguntzen bitartez, hau da, kalteen ehuneko ehun. Según expusieron, el Gobierno de Navarra costeará mediante ayudas todos los gastos de las infraestructuras públicas, o sea el cien por cien de los daños.

Partikularrei dagokienez, prest daude kontribuzioak ez kobratzeko, eta Nafarroako Gobernuak konpentsatuko lieke udalei, baina hori laguntza moduan nahiko murrizta da. Respecto a los particulares, están dispuestos para no cobrar la contribución, y el Gobierno de Navarra compensaría a los Ayuntamientos, pero eso como ayuda es bastante raquítico.

Asegurua dutenek aseguru etxean eman behar dute parte, eta ez bada kargu egiten aseguruen kontsorzioarekin jarri behar dute harremanetan. Los que tienen seguro tienen que dar parte en la casa aseguradora, y si no se hace cargo tienen que ponerse en contacto con el consorcio de seguros.

Egiten ahal dena guk ere aseguruen kontsorziara bidali. Lo que también se puede hacer es remitir por nuestra parte al consorcio de seguros.

Finketako kalteen kargu (zerrakurak eta abar) Nekazari Departamentua egingen da, eta bertara bidali behar dira datuak. De los daños en las fincas (cierres, etc.) se hará cargo el Departamento de Agricultura, y ahí hay que remitir los datos.

M. Leza: Gure aldetik uste dugu lehenbailehen egin behar direla aurrekontuak, eta pribatuen kasuan asegurotik zer ez duten kobratzen ikusi.

M. Leza: por nuestra parte, pensamos que hay que realizar cuanto antes los presupuestos, y respecto a los particulares comprobar qué es lo que no cobran del seguro.

Gutxienez Erriberan eman dutena eman behar dute. Han landako kalteak hutsa izan dira, baina hemen kalte urbanoak ere izan dira, eta horren arabera exigitu eta dirulaguntza eman behar dute, eta asegurotik kobratu gabe gelditzen dena kobratu.

Como mínimo tienen que dar lo que han dado en la Rivera. Allí los daños han sido solamente agrícolas, pero aquí hay también daños urbanos, y de acuerdo con ello hay que exigir y deben de subvencionar, y cobrar lo que no se cobra del seguro.

Alkatea: Partikularren kasuan behar dute, agian, gure laguntza. Badira lur erorketak, eta kenduko ditugula esan diegu, adibidez, Obeneko bordan, Argatako sarreran eta inguruan, Kamioko bordan, eta abar.

El Alcalde: En el caso de los particulares, puede ser que necesiten nuestra ayuda. Hay desprendimientos, y les hemos dicho que les retiraremos, por ejemplo, en Obeneko borda, acceso de Argata y entorno, Kamioko borda, etc.

Zubitan badira adarrak, eta garbitu egin beharko ditugu.

En los puentes hay ramajes, y tendremos que limpiar.

Errekaz erreka txosten bat egin beharko da, adarrek eta abar presa egiten baitute. Orduan zerbait egin behar da. "Confederación de Aguas del Norte"-ri bidali beharko zaio txosten hori.

Habrà que hacer un informe río por río, ya que los ramajes y demás hacen presa. Entonces hay que hacer algo. Dicho informe habrá que enviar a la Confederación de Aguas del Norte.

Erreka bazterrak ere garbitu beharko dira. Horretarako baimenak lortzen errazteko, Nafarroako Gobernuako arduradunek esan dute gestioak egingo dituztela.

Habrà que limpiar también los márgenes de los ríos. Con el fin de facilitar la obtención de permisos para ello, los responsables del Gobierno de Navarra han dicho que realizarán gestiones.

M Leza: Joan den 7 urte-edo presa garbitzeko dirulaguntza eskatu zen, eta ez zuten utzi egitea sarrerik ez dagoelako.

M. Leza: Hace unos siete años se solicitó ayuda para limpiar la presa, y no permitieron realizar porque no hay entrada.

Orain ikusi da nola dauden. Orduan, txosten bat eskatuko nuke eta gastu osorako dirulaguntza. Ez badute ematen beuren erantzukizuna izanen da.

Ahora se ha visto cómo están. Entonces, pediría un informe, y la subvención para la totalidad del gasto. Si no dan será su responsabilidad.

Hori hemen sartzea eskatzen dugu, eta Udaletik indarra egitea dena kobratzeko. Solicitamos su inclusión en lo que estamos, y hacer presión del Ayuntamiento para cobrar todo.

Azalpenak bukatu ondoren, Finalizadas las deliberaciones,

Aho batez ERABAKI DA: SE ACUERDA por unanimidad:

Lehenbizikoa.- Udalbatza jakinaren gainean geratzea. Darse por enterada la Corporación.

Bigarrena.- Kalteen datuak eta balorazioak osatzea, eta dagokien tramiteak egitea. Segundo.- Completar los datos y valoraciones de los daños, y efectuar los trámites correspondientes.

Hirugarrena.- Obra publikoen obrak adjudikatu eta egiteko prozedurak lehenbailehen martxan jartzea. Tercero.- Poner en marcha a la mayor brevedad los procedimientos para la adjudicación y ejecución de las obras públicas.

11. GAIA

11º. ASUNTO

Gaia: Eskakerak eta galderak.

Objeto: Ruegos y preguntas.

Uholdeak izan direla eta, Udalaren osoko bilkura egiteari buruz. Sobre celebración de sesión del Pleno con motivo de las inundaciones.

M. Leza: Guk pentsatzen dugu Udalaren bilera bat egin behar zela, panifikatu, informatu, lanak nola bideratu, kalteei nola aurre egin eta abarri buruz solastu eta aztertzeko. M. Leza: Nosotros pensamos que había que haberse celebrado una reunión del Ayuntamiento para planificar, informar, dirigir los trabajos, cómo hacer frente a los daños, etc.

Alkatea: Guri ez zitzaigun gogoratu. Poliki-poliki hasi ziren berriak, eta gure lehenbiziko planteamendua izan zen txukuntzea eta arazo larrienak atenditzea, gauzak bat bertzearen gainean etortzen baitziran, eta Ubiria enpresari eskertzen diogu bere portaera. El Alcalde: No se nos ocurrió. Las noticias empezaron a llegar poco a poco, y nuestro primer planteamiento fue adecentar y atender los problemas más urgentes, ya que los casos se iban sobreponiendo, y tenemos que agradecer a la empresa Ubiría su comportamiento.

Hurrengoan, eta espero dut ez gertatzea, kontutan hartuko dugu. En la próxima, y espero que no ocurra, lo tendremos en cuenta.

Horrenbestez eta besterik gabe, gaueko bederazi eta erdietan, alkateak bilerari amaiera eman dio, eta akta hau irakurri eta onartu ondoren, alkateak eta idazkariak sinatu dute, honek ziurtatuta.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las nueve y media de la noche, el Alcalde levantó la sesión, de la que se extiende la presente acta que, leída y conforme, firman el Alcalde y Secretario que certifico.